

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

8. kronika: **Euskara eta nortasuna****Euskarari buruzko interesa**

Galdera hau egin da lekuko guzietan, euskaldun ala erdaldun "Zer interes duzu euskarari begira". Erantzunak ziren "oso handia, aski handia, zertxobait, ttipia, batere ez". Frantsesez *très grand et grand, moyen, faible et très faible*. Laburbiltzeko erantzun baikorrak elkarrekin ezarriak dira, ezkorrak ere bai.

*Interesa euskarari buruz (%)*

	2006	2016	Euskaldun	Erdaldun	BAB	Lapurdi barnea	B.Naf. Zubero
(Oso) handia	57	59	86	48	48	64	76
Zertxobait	26	23	8	28	28	22	14
Ttipia Deus ez	16	17	4	22	23	14	8

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

Erantzunek zer erakusten digute ?

Oro har euskarari buruzko interesa hizkuntza gaitasuna baino askoz gorago da. Interesatuak euskaldunak baino hirutan gehiago dira. Interesa sentikortzearen lehen urratsa da. Halere aitzinamendu guti 10 urtez 2006ko inkesta eta oraingoaren artean : interesatuak %57 ziren, orain %59. Altaba anartean gauza asko egin dira euskararen alde.

Nabari da interesa hizkuntza gaitasunari lotua dela : interesatuak %86 dira euskaldunetan eta %48 erdaldunetan. Halere erdaldunen interesa euskarari buruz ez da gutiestekoa : nolazbait %76 euskaraz interesatzen dira.

Ingurune euskaldunak ere badu eraginik, eskualdea euskaldunago eta interesa handiago : BAB %48, Lapurdi ken BAB %64, Baxenabarre-Zubero %76. Interesa sentimenduzko jarrera da. Alabaina sentimentuak ere eraginkor dira.

**Iritzi zerrenda**

Orain aztertuko dugu beste iritzi zerrenda bat erakusten duena hizkuntzaren eragina nortasunari begira. Galde hauk ere lekuko guzietan egin dira, euskaldun ala erdaldun.

*Euskarari buruzko iritziak (bai ados +%, ez ados -%)*

Iritziak	Ados	Oro tara	Euskal dun	Erdal dun	BAB	Laurdi barne	B-Naf. Zubero
<i>Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko</i>	<b>Bai</b>	<b>+45</b>	<b>+62</b>	<b>+39</b>	<b>+35</b>	<b>+49</b>	<b>+60</b>
	Ez	-40	-25	-45	-48	-36	-27
<i>Nahiago dut joan euskaraz egiten duten saltegieta:</i>	<b>Bai</b>	<b>+18</b>	<b>+47</b>	<b>+ 8</b>	<b>+13</b>	<b>+20</b>	<b>+26</b>
	Ez	-43	-22	-50	-48	-41	-39
<i>Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz</i>	<b>Bai</b>	<b>+43</b>	<b>+59</b>	<b>+38</b>	<b>+40</b>	<b>+42</b>	<b>+51</b>
	Ez	-32	-20	-36	-37	-30	-25
<i>Euskarak ez du ukanen frantsesak duen indarra</i>	<b>Ados</b>	<b>+48</b>	<b>+42</b>	<b>+49</b>	<b>+51</b>	<b>+47</b>	<b>+42</b>
	Ez	-20	-29	-16	-23	-30	-24
<i>Diskriminatua sentitu zara euskarazko aukera faltaz ?</i>	<b>Bai</b>	<b>+25</b>	<b>+25</b>	---	<b>+33</b>	<b>+25</b>	<b>+20</b>
	Ez	-74	-74	---	-66	-74	-77
<i>Diskriminatua sentitu zara euskara ez jakiteagatik ?</i>	<b>Bai</b>	<b>+41</b>	---	<b>+41</b>	<b>+38</b>	<b>+43</b>	<b>+47</b>
	Ez	-58	---	-57	-62	-56	-51

*Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.*

### 1. Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko

*ados %45, ez ados %40, berdin zait %14.*

Euskara zertarako? Motibazioak aztertu ditugularik gehiengoaren arabera « euskara jakin behar da euskal herritar izateko » Bai %54. Bereziki euskaldunen aldetik, bai %74. Baina erdaldunetan ere ados direnak %45, eta ados ez direnak %41. Beraz denentzat euskara nortasun kolektiboari edo herritasunari lotua da.

Ba ote du euskarak beste baliagarritasun praktikorik? Adibidez jendearekin komunikatzeko? Hemen erantzunak ez dira biziki argi. Euskaldunek diote baietz %62, baina erdaldunek ezetz %45. Eza nagusi BABn %48, baia nagusi Lapurdi barnean %49 eta bereziki Baxenabarre-Zuberoan %60.

Oro har erdaldunak %70 diren Iparralde honetan euskararen baliagarritasun komunikatiboa ezbaian da, bai %45, ez %40. Hots euskara euskaldun izateko da, ez baitezpada euskaraz komunikatzeko. Funtzio sinbolikoa nagusi. Orain arte ere ikusi genuen euskararen erabilera ez zela gaitasunaren heinera heltzen.

### 2. Nahiago dut joan euskaraz egiten duten saltegieta

*ados %18, ez ados %43, berdin zait %36.*

Adibidez euskarak zer balio du erosketak egiteko. Salbu euskaldunentzat (%47) beste nehoentzat euskara ez da nehon beharrezko erosketak egiteko. Oro har ados %18, ez ados %43. Baxenabarre-Zuberoan ere saltegi euskaldunean erostea nahiago dutenak gutiengoan dira %26, besteak %39. Itxuraz erabilerari buruzko militantzia epela da. Salbu kasu batean.

### *3 Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz eman*

*ados %43, ez ados %32, berdin zait %21.*

Lehen hitzaren estrategia erabiltzen da jakiteko mintzakide ezezagunak euskara badakien ala ez. Militantzia eskatzen du bereziki gehiengo handiena erdalduna den lekuetan.

Dena dela gehiengoa ados da lehen hitzaren estrategiarekin (bai %43, ez %32) , Bereziki euskaldunak (bai %59, ez %20 eta Iparralde barnealdean (bai %51, ez %25). Bai eta erdaldunak ere ados dira, neurri apalagoan (bai %38, ez %36) eta BABn (bai %40, ez %37). Beraz denak dira ados euskaldunek harrotasuna erakuts dezaten beren hizkuntzaz.

### *4. Euskarak ez du sekulan ukanen frantsesak duen indarra*

*ados %48, ez ados %20, berdin zait %21.*

Hemen agertzen da euskarari buruzko gutiagotasunaren konplexua. Herritar guziak ados dira frantsesa beti euskarari nagusituko zaiola. Erdaldunak bereziki (%49) eta BABtarrak (%51). Baita euskaldunak ere (ados %42, ez ados %29) Ondorio berdintsua Baxenabarre-Zuberon. Euskarari buruzko irudipen ezkor hau gainditu behar dugu nahi badugu gure hizkuntzaren transmisioa eta erabilera segurtatu.

### *5. Diskriminatua sentitu zara euskara erabiltzeko aukera faltaz ?*

*ados %25, ez ados %74, berdin zait %05.*

Iparraldean ez da diskriminazio sentimendurik euskararengatik. Bosgarren galdea euskaldunei egina zaie eta hiru laurdenek ez dute frustraziorik sentitzen beren hizkuntza erabiltzeko aukera eskazez. Haatik laurden bat frustratuak dira euskaraz hitzegiteko aukera eskasaz. Emaitzak berdintsu hiru eskualdeetan.

### *6. Diskriminatua sentitu zara euskara ez jakiteagatik ?*

*ados %41, ez ados %58, berdin zait %08.*

Seigarren galdea erdaldunentzat. Erdaldunek frustrazio gehiago sentitzen dute euskara ez jakitea gatik (% 41), baina gehiengoa lasai bizi da euskararik gabe (%58) bereziki BABn (%62) baina beste eskualdeetan ere.

## **Laburbilduz**

Euskarak deus ez luke irabaziko, hizkuntzen arteko gerla piztuz. Baina euskaldunek borroka bat eraman behar dugu, gure eskubideak zaintzeko eta herriaren nortasun kolektiboa bizkortzeko.